OHARRA: Arazo teknikoak zirela eta grabaziorik ez zen egon.
Por problemas técnicos, no se pudo realizar la grabación.

AKTA 19 ACTA 19

2009KO UZTAILAK 29 29 DE JULIO DE 2009

ORGANOA: UDAL BATZARRA
ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA
SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO UZTAILAK 29
DIA: 29 DE JULIO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00
HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.
PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK
CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Pilar ETXABE IRIONDO
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO
Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:
NO ASISTEN:
Manuel ZUBIA ARTABE

IDAZKARIA: JON GIL BELTZA,
SECRETARIO ACCTAL.

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du.

Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, ezohiko pleno honi ekingo diogu gaur, uztailak hogeitabederatzi, asteazkena, eta eguneko aztergaiarekin hasi baino lehen hemen Gazte ordezkariak etorri direnez Gaztetxeari buruz zerbait irakurri nahi dutenez, hitza beraiei luzatzen diet,

Ez dugu honi buruz eztabaidatuko, gai ordenean ez delako azaltzen.

ZUGAko kide batek hitza hartzen du Gaztetxeari buruzko idatzia irakurriz:

"Zumaiako gazteek aspaldidanik aldarrikatu izan dute biltzeko eta euren irudimena askatzeko espazio fisiko bat.
Gazteria herritarren sektore garrantzitsu bat izanda, sekula ez zaio gainerako sektoreei adinako arreta eskeini udaletik. Honela jubilatuentzat, haurrentzat edota nerabeentzat lokal ugari bideratu izanagatik, gazteontzat berdina egitea pentsaezina dela dirudi.
Azken urteotan, Zumaiako gazteriak gorakada eta dinamismo handia erakutsi du. ZUGAk, hori ikusita, gaztetxe baten beharra azpimarratu zuen herriko eraikin hutsen inguruko bilera irekietan.
Herriko sektore bat izanda, Udalaren erantzunkizuna zen, eta da, gure aburuz, espazio horren inguruko beharrai erantzutea.
Haatik, bilera horietan gaia albo batera uzteak, eta bileren maiztasun faltak gazteen berpiztea hoztu aurretik gaztetxe baten bila gure bide propioa jorratzera behartu gintuen.
Herrian babesa bilatu eta lortu genuen, sinadura bilketa baten bidez, koadrilaz koadrila ia herriko gazte denekin bildu ginen, eta guztiak nabarmendu zuten gaztetxearen premia.
Gainera, zilegitzat jo zuten okupazioaren bidea.

Eta azkenean iritsi zen, behingoz Zumaian gaztetxe bat loru zen eguna. Lan eta izerdi askoren ruituekin gozatuz bizitzako urterik onena izan da gaztetxean igarotakoa.
Zoritxarrez, aurpegia estalita azaldu ziren gure ametsak hil nahi dituzten horiek, eta dena itxi zuten, aldreiluz adreilu gure irudimena isolatu eta barruan usteltzen utzi nahiean. Egoera patetikoa. Etxe bat berriro usteldu eta erortzera kondenatua, gazteria kale gorrian eta 13 gazte epaiketaren zain.
Baina gure irudimena edozein zirrikitutatik irtengo da, kalez kale zabalduz. Gaztetxea aldarrikatuko dugu, udaletik gazteari zor zaigun begirunearen islada gisa.
Elkarrizketarako prest, herritar bezala zor zaiguna lortzeko; baina okupazioaren bidea baztertu gabe, gure bidean bakarrik aurrera egitera behartzen bagaituzte ere.
Zor zaigulako, merezi dugulako eta ez gaituztelako kikilduko LORTUKO DUGU ¡GAZTETXE FINKOA ORAIN! Kaleetan ikusiko gara".

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko, eta ondoren eguneko aztergaiaren lehendabiziko puntuarekin pasako gara,

**OGASUNA:**
**2008 KONTU OROKORRA; ONARTZEA BIDEZKO BALDIN BADA.-**

Joseba, Ogasun batzordeburu bezala,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Arratsaldeon, guztioi, ondoren kontuhartzailetzaren txostenarekin batera 2008ko kontu orokorraren memoria irakurriko dut.

**<u>KONTUHARTZAILETZAREN TXOSTENA</u>**

INFORME DE INTERVENCION

**GAIA:** KONTU OROKORRA

**APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA:** abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62 eta 63 atalak, Erakunde Lokaletako Aurrekontuen buruzkoa, eta

**ASUNTO:** CUENTA GENERAL

**LEGISLACION APLICABLE:** Arts. 62 y 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales, y las Reglas 326 a 336 del

Abenduaren 1eko 97/1992 Foru Dekretuaren 326tik 336ra arteko erregelak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzioa onesten duena.

Decreto Foral 97/1992 de 1 de Diciembre por el que se aprueba la Instrucción de Contabilidad de las Entidades Locales.

**TXOSTENA:** Kontu Orokorrak ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketa guztiak, independienteak eta auxiliarrak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu.

Udal Entitateak, aurrekontuen likidaziotik aparte, Kontu Orokorra egin beharko dute eta ondorengo hauek osatuko dute: Entitate berarenak, bere Organismo Autonomorenak eta Sozietate Publikoenak beren kapital soziala %50etik gorako partaidetza dutenean. Kontu Orokorra honek, bai Udaletxeari bai Organismo Autonomoei dagokionean, ondoko zati hauek izango ditu:

1.- Aurrez alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.

2.- Udaletxean aurkeztutako abal guztien zerrenda.

3.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen osaera eta egoera adierazten duena.

4.- Galdu-Irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituena ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.

5.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta

**INFORME:** La Cuenta General representa todas las operaciones presupuestarias, extrapresupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio.

Las Entidades Locales, independientemente del cierre o liquidación presupuestaria, deberán elaborar la Cuenta General que estará integrada por la de la propia Entidad, la de sus Organismos Autónomos y la de las Sociedades Públicas participadas en proporción superior al 50% de su capital. Esta Cuenta General, tanto para el Ayuntamiento como para sus Organismos Autónomos, constará de las siguientes partes:

1.- La liquidación presupuestaria, aprobada anteriormente mediante decreto de alcaldía.

2.- La relación de avales depositados en el Ayuntamiento.

3.- El balance de situación que expresa la composición y situación del Patrimonio al día del cierre del ejercicio.

4.- La cuenta de pérdidas y ganancias, que expresa los resultados del ejercicio desde el punto de vista económico-patrimonial.

5.- Una memoria del ejercicio,

zorraren egoerarekin.

con el cuadro de financiación y el Estado de la Deuda.

Kontu Orokorrean parte hartzen duten Sozietate Publikoak, hiru azkenengo dokumentoak aurkeztu beharko dituzte, hau da, egoera balantzea, galdu-irabazien kontua eta txostena.

Las sociedades públicas integrantes de la Cuenta General, deberán presentar sólo los 3 últimos documentos, es decir, el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria.

Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean azalduko da 15 egunetan eta ondoren Udalbatzaren onespenerako jarriko da eta bidezko bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango zaio arautegian ezarritakoaren arabera.

La Cuenta General, con el informe de la Comisión Especial de Cuentas, será expuesta al público por un plazo de 15 días y posteriormente se someterá al Pleno de la Corporación para que en su caso pueda ser aprobada antes del 31 de julio y rendir al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece la normativa.

Uztailaren 2an Kontuen Batzorde Berezian (Hazienda Batzordea) Kontu Orokorra hau aurkeztu zen eta aldeko irizpenarekin GAOn jendaurrean jarri zen 15 eguneko epean inolako eragozpenik edo oharrik aurkeztu gabe.

Presentada esta Cuenta General en la Comisión Especial de Cuentas (Comisión de Hacienda) del día 2 de julio, y con el dictamen favorable de la comisión se expuso al público en el BOG durante 15 días sin presentarse ninguna reclamación, reparo u observación.

Jarraian Memoriaren azalpena egingo dut,

(1) <u>Erakundearen jarduera</u>

(1) <u>Actividad del Ente</u>

Zumaiako Udala —aurrerantzean Udala— Administrazioko toki-entitate bat, oinarrizko alderdietan Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak zuzentzen duena. Aipatutako lege horretako 25 eta 26. artikulu

Ayuntamiento de Zumaia, en adelante, el Ayuntamiento, es una entidad local de la Administración regida en sus aspectos básicos por la Ley 7/85 Reguladora de Bases de Régimen Local. Los artículos 25 y 26 de la

Udalak dituzten eskumen eta ematen dituzten zerbitzu batzuk zehazten dira, aipagarrienak hauek: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzea, ur-hornidura, saneamendu-sarea, herriko argiteria, hirigintza-diziplina, kultura eta kiroletako jarduerak, etab.

Zerbitzu horiek batez ere hauekin finantzatzen dira:

- Udal-zergak
- Aipatutako zerbitzuek finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak
- Partaidetza zerga kontzertuetan eta kontzertuak ez direnetan
- Ondare-sarrerak
- Diru-laguntzak
- Kredituak

Zerbitzuak zuzenean edota zeharka eman ditzakete udalek. Zuzeneko kudeaketa Udalak berak gara dezake, edota toki-mailako erakunde autonomoak eratu, udal sozietate anonimoak, mankomunitateak eta partzuergoak. Udalak erakunde hauetan hartzen du parte:

1. Erakunde autonomoak: San Juan Egoitza eta Musika Patronatua
2. Zumaia Lantzen S.A. sozietatea (100%)

citada Ley definen algunas de las competencias o servicios públicos que prestan los ayuntamientos, entre las cuales cabe citar: seguridad, servicio de limpieza, extinción de incendios, abastecimiento de agua, red de saneamiento, alumbrado público, disciplina urbanística, actividades culturales y deportivas, etc.

Estos servicios son financiados básicamente con:

- Impuestos municipales
- Tasas y precios públicos que financian específicamente algunos de los servicios citados
- Participación en Impuestos concertados y no concertados
- Ingresos patrimoniales
- Subvenciones
- Créditos

Los servicios pueden ser prestados de manera directa o indirecta por los ayuntamientos. La gestión directa puede desarrollarse por el propio Ayuntamiento o bien mediante la creación de organismos autónomos locales, sociedades anónimas municipales, mancomunidades y consorcios, participando el Ayuntamiento en las siguientes entidades:

7. Organismos autónomos San Juan Egoitza y Musika Patronatua
8. Sociedad Zumaia Lantzen S.A. (100%)

3. Zumaiako Kirol Portua S.A. sozietatea
4. Urola Kosta Udal Elkartea.
5. Urkome Mankomunitatea
6. Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa

Azpimarratzekoa da, era berean, ekainaren 30eko Lurzoruaren 2/2006 euskal Legeak zehazten duen ehunekoa, lursailak erosteari dagokiona eta 2008ko aurrekontuetan ezarri zena (gutxienez sarreretako 1. eta 2. kapituluetako %10), ez dela egikaritu 2008ko ekitaldian.

(2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi fidela-

Erantsitako urteko kontuak aurkezteko modua bat dator kontabilitate publikoaren printzipioekin, hau da, alderdi adierazgarri guztietan Udalaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute. Aipatutako urteko kontuak prestatzeko erakundearen liburuak eta erregistroak hartu dira abiapuntutzat, eta egoki aurkezteko zenbait gauza birsailkatu dira.

2007ko ekitaldiari zegozkion urteko kontuak 2008ko irailaren 25ean onartu zituen Udalbatzaren osoko bilkurak.

2008ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak oraindik ez ditu onartu Udalbatzaren osoko bilkurak. Hala ere, ez da espero

9. Sociedad Zumaiako Kirol Portua S.A.
10. Mancomunidad Urola Kosta.
11. Mancomunidad Urkome
12. Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa

También cabe destacar, que el porcentaje que estima la Ley del Suelo Vasca 2/2006, de 30 de junio, y que se estableció en los presupuestos del 2008, en referencia a la compra de terrenos (minimo el 10% del cap 1 y 2 de ingresos) no se ha ejecutado en el ejercicio 2008.

(2) Bases de Presentación de las Cuentas Anuales

a) Imagen fiel-

Las cuentas anuales adjuntas se presentan de acuerdo con principios contables públicos, de forma que expresen, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio, la situación financiera y los resultados del Ayuntamiento. Dichas cuentas anuales se han preparado a partir de los libros y registros de contabilidad de la Entidad, e incluyen ciertas reclasificaciones para su adecuada presentación.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2007 fueron aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento el 25 de septiembre de 2008.

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2008 están pendientes de

kontuetan aldaketa garrantzitsurik egotea onarpen horren ondorioz.

aprobación por parte del Pleno del Ayuntamiento, si bien, no se espera que se produzcan modificaciones de importancia en las mismas como consecuencia de dicha aprobación.

b) Kontabilitateko printzipioak-

Udalak hasierako balantze-egoera eratzeko hauek hartu zituen kontuan 1993ko urtarrilaren 1ean: data horren aurretik eskuratutako edo eraikitako udal-ibilgetua, orduan epea amaitu gabeko pasiboak, eta 1992ko abenduaren 31n zeuden altxortegi-balantzak, zordunak eta hartzekodunak eta altxortegiko geldikinak.

1993an, zegoen ibilgetuari egoera-balantzea gehitzeko asmoz, udal-ibilgetuaren inbentarioa eta balorazioa egiteko eskatu zion Udalak AVASA (Asesores de Valoración de Activos S.A.) enpresari, baloratzeko arauek dioten arren ondasun horiek baloratzeko eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua erabili behar direla nahitaez. Lan horren ondorioz, udalaren amortizazioen inbentario garbia 1993ko abenduaren 31n 1.188 milioikoa zen, gutxi gorabehera.

b) Principios contables-

El Ayuntamiento constituyó su balance de situación inicial el 1 de enero de 1993 a partir del inmovilizado municipal adquirido o construido con anterioridad a dicha fecha, de los pasivos no vencidos entonces y de los saldos de tesorería, deudores y acreedores del Remanente de tesorería al 31 de diciembre de 1992.

En 1993, con objeto de incorporar al balance de situación el inmovilizado existente, el Ayuntamiento encargó la realización de un inventario y valoración del inmovilizado municipal a la empresa AVASA Asesores de Valoración de Activos S.A., a pesar de que las normas de valoración indican la obligatoriedad del uso para la valoración de dichos bienes del precio de adquisición o del coste de producción. El importe al 31 de diciembre de 1993 del inventario municipal neto de amortizaciones que resultó de dicho trabajo ascendía a 1.188 millones de pesetas, aproximadamente.

2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzean, erantsitakoan, 2009ko urtarrilaren 1a baino lehen erabilera orokorrerako emantzat jotzen dira ondasunak, Izartu II-ri dagozkion uneko obrak salbu.

En el balance de situación al 31 de diciembre de 2008 adjunto, los bienes se suponen entregados al uso general con anterioridad al 1 de enero de 2009, con excepción de la obras en curso correspondientes a Izartu II.

(3) Emaitzen banaketa

2008ko ekitaldiaren emaitzen banaketarako proposamen hau aurkeztuko zaio Udalbatzaren osoko bilkurari, onar dezan:

(3) Distribución de Resultados

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2008 que se propondrá al Pleno del Ayuntamiento para su aprobación es la siguiente:

| Concepto | Euros |
|---|---|
| **Ekitaldiaren emaitza, erantsitako galdu-irabazien kontuaren arabera-** | |
| Resultado del ejercicio, según la cuenta de pérdidas y ganancias adjunta- | 191.183,81 |
| **Hauetan banatu daitekeena:** | ========== |
| Distribuible a: | |
| Patrimonio | - |
| Resultados positivos de ejercicios cerrados | 191.183,81 |
| Resultados negativos de ejercicios cerrados | |
| **Ondarea** | ------------ |
| **Itxitako ekitaldien emaitza positiboak** | 191.183,81 |
| **Itxitako ekitaldien emaitza negatiboak** | ======== |

Eta azkenik uztailaren 2ko Hazienda Batzordean egin zen diktamena, kontu orokorrari buruzkoa,

## AURREKARIAK

1.- 2009ko martxoaren 31ean 2008ko aurrekontuen likidazioak onartzen dira, Udalari eta Erakunde Autonomoei dagozkienak, San Juan Egoitza eta Musika Patronatua.

## ANTECEDENTES

1.- Con fecha 31 de marzo de 2009 se aprueban las liquidaciones presupuestarias del 2008 correspondientes al Ayuntamiento y a sus Organismos Autónomos San Juan Egoitza y Musika Patronatua.

2.- Uztailaren 2an 2008ko Kontu Orokorra aurkezten da Hazienda Batzordean. Kontu Orokorrak ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantsitzuenak aztertzen dira.

2.- Con fecha 2 de julio se presenta en la Comisión de Hacienda la Cuenta General correspondiente al año 2008 que representa todas las operaciones presupuestarias, extrapresupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio, y se analizan los importes y conceptos más relevantes.

3.- Kontuhartzailetzako txostena eransten da.

3.- Se adjunta el informe de intervención.

**IRIZPENA**

Ondorioz, Batzorde honetan, EAren, TALDE MISTOAren, eta EB-ARALARren aldeko botoekin, Hazienda Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan arautuakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

**DICTAMEN**

En consecuencia esta Comisión acuerda con los votos: de EA, del GRUPO MIXTO y de EB-ARALAR aprobar el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes de la Corporación establecido en el Art.47 de la Ley 7/1.985 de dos de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local la siguiente PROPUESTA:

1.- Jendaurrera azalduko da 15

1.- Exponerla al público en el

egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikuluaren arabera.

BOG durante 15 días, de acuerdo con el artículo 63.3 de la NF 21/2003 de 19 de diciembre Presupuestaria de las Entidades Locales del TTHH de Gipuzkoa Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

2.- Jendaurreko epea amaitutakoan eta aurkeztutako erreklamazioak edo oharrak erabakita, udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.

2.- Finalizado el período de exposición pública y resueltas las reclamaciones o reparos formulados, se someterá al Pleno de la Corporación para que, en su caso, pueda ser aprobada antes del 31 de julio.

3.- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera.

3.- La Cuenta General se rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.

Besterik gabe, bozkatzera pasako gara,PNV

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE-k?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Abstención

ALKATE-LEHENDAKARIA: Abstentzioa, Ezker-Batua Aralarrek?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 10 botu (3 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 2 EA; 2 EB-Berdeak/Aralar)
Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 2 (PSOE)

**LEHENENGOA: 2008 KONTU OROKORRA ONARTZEA** Udaletxeko Kontuaz, San Juan Egoitzakoaz, Musika Patronatukoaz eta Zumaia Lantzen Elkarte Anonimokoaz osatzen dena, jendaurreko agerraldi epea iraganik eta inolako oharpenik aurkeztu ez delarik.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 10 votos (3 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 2 EA; 2 EB-Berdeak/Aralar)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 2 (PSOE)

**PRIMERO: APROBAR LA CUENTA GENERAL 2008** compuesta de la Cuenta del Ayuntamiento, de la de la Residencia San Juan, del la del Patronato de Música y de la de la Entidad Autónoma Zumaia Lantzen, transcurrido el plazo de exposición pública sin que se haya presentado ninguna alegación.

**Besterik gabe, bigarren puntua:**
**BAKE EPAILE IZENDAPEN PROPOSAMENA**

Denok dakigu Bake Epaile titular eta ordezkoa izendatzeko udalak emandako urratsak zein izan diren,

Izangaiek eskaerak luzatzeko hamabost eguneko jendaurreko epea irekitzea 2009.05.28ko datako Alkate Dekretuz erabakia hartu zen. Iragarkia 2009.06.04ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Denbora eta era egokian lau eskaera aurkeztu dira.

Bake Epaile kargua jabetzan izateko gutxieneko ukan beharrak, aurkezturiko izangai guztiek betetzen dituztela, hautaketa prozesua aurreko izendapenaren berdina erabili denez, taula osoa dagoeneko bakoitzak

daukazute eta aurrez baita ere bozeraemaileen batzordean ere gaia aipatu izan da, beraz, garbi azaltzen da Bake Epaile Titularra, M. Isabel Aizpurua Menesen Andrearen alde egiten da eta ordezko Bake Epailea, berriz, berdinketa bat dagoenez, eta aurrez izandako esperientzia kontuan harturik Samuel Ruiz Morenoren alde erabakitzen da, norbaitek zerbait esateko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, nik eta gure taldearen izenean EAJ-PNV-ren izenean gaur egun arte izan den Bake Epailea, Samuel Ruiz Morenori eskertu orain arte eginiko lanak,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, PSOE? Ezerrez; EB-Aralar? Ezerrez; Talde Mistoa? Ezerrez eta guk ere berdin gure alderdiaren izenean eskertu egindako lan guztiagatik, besterik gabe bozkatzera pasako gara

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko Botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND..: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde-mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta guk ere aldeko botua,

PNV-ko ordezkariak egin duen bezalaxe, orain arte egindako lanonak goraipatzeko modukoa da, beraz, Zumaiako Udaletxearen izenean eskerrik asko, orain arte egindako lan guztiagatik.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu ( 3 PNV-EAJ; 2 PSE-PSOE 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Talde Mistoa; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

**LEHENENGOA:** Euskadiko Justizia Epaitegi Goreneko Gobemu Salari Azpeitiako Instrukzio eta Lehen Instantziako Epailearen bidez, izendapen hauek egin ditzala PROPOSATZEA ETA AHO BATEZ ONARTZEA: Bake Epaile Titular, **M. Isabel AIZPURUA MENESES** And.; eta ordezko Bake Epaile: **Samuel RUIZ MORENO** Jna.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos ( 3 PNV-EAJ; 2 PSE-PSOE 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Talde Mistoa; 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

**PRIMERO:** APROBAR POR UNANIMIDAD Y PROPONER para su nombramiento a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del Pais Vasco, por conducto del Juez de 1ª Instancia e Instrucción de Azpeitia, como Juez de Paz Titular: a **Dª. M. Isabel AIZPURUA MENESES** y como Juez de Paz Sustituto a **D. Samuel RUIZ MORENO.**

Hirugarren puntua: **HIRIGINTZA:**

**466/2008 zk. DUEN ALKATETZA-DEKRETUA BALIOZKOTZEA; ETA ALONDEGIA UDAL-LIBURUTEGI BEZALA EGOKITZEKO LANEN KONTRATUA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

«Ikusita abenduaren 1eko 466/2008 alkatetza-dekretu bidez onartu zirela ALONDEGIA UDAL-LIBURUTEGI BIHUR-TZEKO BIRGAITZE-OBREN kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko espedientea,

«Visto que mediante Decreto de Alcaldía n° 466/2008, de 1 de diciembre, se aprobó el expediente y los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas para la adjudicación del contrato de

administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria. Xedatutako baldintzen artean, dirutan hoberena den eskaintzari erreparatu beharra eta zenbait esleipen-irizpide finkatu ziren. Halaber, kontratu hori esleitzeak berekin dakarren gastua ere onartu zen.

OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN DE LA ALHÓNDIGA COMO BIBLIOTECA MUNICIPAL, por procedimiento abierto, oferta económicamente más ventajosa, varios criterios de adjudicación, y asimismo se procedió a aprobar el gasto que supone la adjudicación del mismo.

Ikusita 2008ko abenduaren 12an lizitazio-iragarkia argitaratu zela, hogeita hamar egun naturaleko epe batez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean, interesdunek beren proposamenak aurkez zitzaten.

Visto que con fecha 12 de diciembre de 2008 se publicó anuncio de licitación por plazo de treinta días naturales en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Perfil de contratante del órgano de contratación, a fin de que los interesados presentaran sus proposiciones.

Ikusita lizitazioan aurkeztu zirela espedientean jasota dauden proposamenak.

Visto que durante la licitación se presentaron las proposiciones que constan en el expediente.

Ikusita, kontratazio-mahaia eratu ondoren, kontratazio-mahai horrek ANTZIBAR, S.A. enpresaren aldeko esleipen-proposamena egin dutela, eta Hirigintza Sailaren balorazio teknikoa jasotzen duen 09/32 txostena hartu eta gero.

Visto que tras la constitución de la Mesa de contratación ésta, tras la recepción del informe de valoración técnica 09/32 del Departamento de Urbanismo, realizó propuesta de adjudicación a favor de ANTZIBAR, S.A.

Ikusita Idazkaritzaren 2009ko uztailaren 13ko txostena; aztertuta txostenarekin batera doazen dokumentuak, harekin bat, eta urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 135.3 artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki,

Visto el Informe de Secretaría de 13 de julio de 2009; examinada la documentación que la acompaña, de acuerdo con la misma, y de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional Segunda y el artículo 135.3 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público,

Besterik gabe bozka ematera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko Botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND..: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde-mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta guk ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu ( 3 PNV-EAJ; 2 PSE-PSOE 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Talde Mistoa; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

**LEHENA**: Baliozkotutzat jotzea abenduaren 1eko 466/2008 alkatetza-dekretua, kontratazio-espedientearen hasiera formalizatu duena.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos ( 3 PNV-EAJ; 2 PSE-PSOE 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Grupo Mixto; 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

**PRIMERO:** Declarar convalidado el Decreto de Alcaldía no 466/2008, de 1 de diciembre, por el que se formalizó el inicio del expediente de contratación.

**BIGARRENA:** Baliozkotzat jotzea lizitazioa, eta behin-behinean esleitzea ALONDEGIA UDAL - LIBURUTEGI BIHURTZEKO BIRGAITZE-OBREN kontratua ANTZIBAR, S.A. enpresari, MILIOI BAT ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA, LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOren (1.876.499,70 euro) prezioan, eta HIRUREHUN MILA, BERREHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEHITA HAMABOST ZENTIMO (300.239,95 euro), Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, honako hauen arabera:

1. Hirigintza Sailaren balorazio teknikoa jasotzen duen 09/32 txostena.

2. Behin-behineko esleipenaren proposamena, kontratazio-mahaiak egina, 2009ko ekainaren 10ean.

**HIRUGARRENA:** Behin-behineko esleipena jakinaraztea, esleipendun izan ez diren lizitatzaile guztiei.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren behin-behineko esleipendun den ANTZIBAR, S.A. enpresari jakinaraztea eta eskatzea aurkez ditzala zerga-betebeharrak eta

**SEGUNDO:** Declarar válida la licitación y adjudicar provisionalmente el contrato de OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN DE LA ALHÓNDIGA COMO BIBLIOTECA MUNICIPAL a la empresa ANTZIBAR, S.A., por el precio de UN MILLÓN OCHOCIENTOS SETENTA Y SEIS MIL CUATROCIENTOS NOVENTA Y NUEVE EUROS CON SETENTA CÉNTIMOS (1.876.499,70C) euros y TRESCIENTOS MIL DOSCIENTOS TREINTA Y NUEVE EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (300.239,95C) euros correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido y de acuerdo con las siguientes consideraciones:

1. Informe de valoración técnica 09/32 del Departamento de Urbanismo.

2. Propuesta de Adjudicación Provisional realizada por la mesa de contratación, de fecha 10 de junio de 2009.

**TERCERO:** Notificar la adjudicación provisional a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

**CUARTO:** Notificar y requerir a ANTZIBAR, S.A., adjudicatario provisional del contrato, para que presente, dentro de los quince días hábiles siguientes al de la fecha de

Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ziurtatzen duten egiaztagiriak eta kontratatzeko gaitasuna frogatzen duten bestelako dokumentuak, behin-behineko esleipena kontratatzaile-profilean argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan. Halaber, eskatuko zaio behin betiko bermea era dezala, kontratua esleitzearen zenbatekoaren %5, BEZik gabe; hau da, 93.824,99 euro.

**BOSGARRENA:** Kontratuaren behin-behineko esleipena argitaratzea, kontratatzaile-profilean iragarkia jarriz».

publicación de la adjudicación provisional en el Perfil de contratante, la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y cualesquiera otros documentos acreditativos de su aptitud para contratar, así como constituir la garantía definitiva, del 5% del importe de adjudicación del contrato, excluido el IVA, es decir, 93.824,99C.

**QUINTO:** Publicar la adjudicación provisional del contrato mediante anuncio en el Perfil de contratante».

Jarraian Laugarren puntura pasako gara: PERTSONALA:
**2009ko LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA, ONARTZEA BIDEZKO BALDIN BADA.**

Andoni, zu Pertsonal buru bezala hitza emango dizut:

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: 2009ko uztailaren 8ko pertsonal batzordearen irizpena, 2009ko lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzeko, aurrekariak irakurriko ditut:

**AURREKARIAK**

1.- 2008ko lanpostuen zerrendan zein plantilla organikoan Gizarte Laguntzailearen lanpostuan bi plaza berri osatu ziren, bata %100 lanaldiarekin eta bestea %50eko lanaldiarekin.Bi plaza hauek 2008ko lan-eskaintza publikora atera ziren. Ondoren lanpostuen zerrendan zein plantilla organikoan beste plaza berri bat osatu zen %50eko lanaldira

**ANTECEDENTES**

1.- En la relación de puestos de trabajo y en la plantilla orgánica del 2008 en el puesto de Asistent@ Social se incorporaron en un principio dos plazas nuevas, una plaza al 100% de la jornada y otra plaza al 50%. Ambas plazas se sacaron a oferta pública de empleo el año 2.008.Posteriormente se incorporó una nueva plaza a la relación de puestos de trabajo y a la plantilla

aurrekontuko zuzkidura hauekin departamenduko pertsonal beharrak beteko zirelarik. Kontuan izanda alde batetik, lan-eskaintza publikora %50eko lanaldira irten zen plaza betetzea ia ezinezkoa izango dela oposizio-lehiaketa gainditu dituzten hautagaien gaur egungo egoera laborala kontuan izanik eta bestetik, departamenduko pertsonal beharrak gehituz joan direla eta mugarik gabe luzatuko direla ikusirik, 2008ko lan-eskaintza publikora %50eko lanaldira irten zen plaza %100eko lanaldira pasatu behar dela kontsideratzen da.Ondorioz, gerora %50eko lanaldira sortu zen plaza amortizatu egingo da.Era horretara bi plaza %50eko lanaldira sortu beharrean bat sortuko litzateke %100eko lanaldira.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2009ko uztailaren 8ko Pertsonaleko Batzorde informatzaileak, Talde Mistoaren, EB-Aralar eta EAren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin Pertsonaleko Batzordeak irizpen hau jasotzen du eta honako **PROPOSAMEN** hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan arautkoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

orgánica al 50% de la jornada considerando que las necesidades del departamento quedarían cubiertas con estas dotaciones.Visto que la cobertura de la plaza que salió a oferta pública al 50% va a resultar prácticamente imposible vista la situación laboral actual de los candidatos quee han superado el concurso-oposición y que las necesidades actuales de personal del departamento han ido en aumento y se van a prolongar indefinidamente se considera que la plaza que salió a oferta pública de empleo el año 2.008 debe ser ampliada al 100% de la jornada.En consecuencia se va a amortizar la plaza al 50% que se creó posteriormente.De esta manera en lugar de crear dos plazas al 50% se creará una sóla plaza pero al 100% de la jornada.

### DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de Personal de fecha 8 de julio de 2.009 acuerda con los votos a favor del Grupo Mixto, IU-Aralar, y EA y la abstención de PNV el presente dictamen y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes de la Corporación establecido en el Art.47 de la Ley 7/1.985 de dos de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente **PROPUESTA:**

1.- 2009ko lanpostuen zerrendaren zein plantilla organikoaren ondorengo aldaketak onartzea:

- Gizarte Laguntzailearen plaza bat %50eko lanalditik %100eko lanaldira pasatzea eta %50eko lanaldira sortutako Gizarte Laguntzailearen plaza bat amortizatzea.

1.- Aprobar las siguientes modificaciones en la relación de puestos de trabajo y en la plantilla orgánica del 2009:

-La ampliación de jornada del 50% al 100% de una plaza de asistente social y la amortización de una plaza de asistente social creada al 50% de jornada.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Azalpena egin ondoren bozka ematera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko Botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE?

